

A Currilingua eginen dute bihar, korsikeraren aldeko egun bakarreko Korrika, Aleriatik Bonifaziurat. Bigarren aldiak parte hartzaile haboro dauzka, eta kilometro haboro hego muturreraino.

Uhartea korrika korsikeraz

Ainize Madariaga

Sentitzen dugu jada badela parte hartze eta olde handiagoa. Internet bidezko izen emate gehiago dago jada, herriko etxeak ere gehiago inplikatzen dira...», erran du Micheli Leccia Parlemu Corsu kolektiboaren lehendakari eta antolatzaile nagusiak.

Abiatu aitzintxo kartsuki mintzatu da Leccia: urte guzietz nahi dute ibilbidea hantu. Iazko 90 kilometroetatik 101era eginen dute jauzi, hegoalderago luzatuz, sentitu baitute jendeen nahikeria egitasmoan parte hartzeko.

Noizbait, zerendako ez, uhartea inguratu nahiko lukete, eta berdin, zerendako ez, ez bakarrik lasterka, eta ez soilik egun bakarrean... Gehiagokorik ez du salatu nahi izan Lecciak, irriñoa ezpain kantoian.

Baliabide guziak baliatu dituzte egin ahala jende gehien kausitze-ko, hori baitute helburu lehena: korsikeraren erabilera bultzatzea; oraingoz, egun bakarrean, baina, gerora begira, hedatu nahiko lukete hizkuntzari emanen zaion protagonismoa: «Gure xedea da denengana iristea. Abantaila dugu, herri ttipia izanda, egiten dugun orok oihartzun handia duela.

Gure filosofiaren barruan da denen parte hartzea».

Korrikan bezala, kilometro bakarra eros daiteke, ehun eurotik goiti. Jadaneke kasik berrehun parte hartzaile dituzte: «Kilometroa erosi duten entitateak dira: enpresa, saltegi, elkarte, kirol klub, herriko etxe edota bertze edozein instituzio. Berez, 101 herriko genituzkeen, baina kasik bikoitza dugu! Eta emendatzen



«Sentitzen dugu jada badela parte hartze eta olde handiagoa. [...] Herriko etxeak gehiago inplikatzen dira»

Micheli Leccia
Parlemu Corsu taldeko lehendakaria

segitzen du!». Egitura politikoek ez dute haizu kilometroen erosteko, on ez den gazteria ordezkatzen duen sindikatua.

Herriko etxeek agertu dute inplikatze nahia, adibidez, Aleriak. Izan ere, abiatze gosaria eskainiko baitie korrikalariei 07:00ak aitzin, eta kolektiboari, hornigaiak. Horrekin aski ez, he-



A Currilingua, korsikeraren erabilera aldeko Korrikaren 65. kilometroan, iaz, lehen aldian. PARLEMU CORSU

rriko etxeak hiriko ahal bezain bat elkartereganana jo du, A Currilinguan ahal bezain bat lasterkarik parte har dezan, hiria zeharkatuko duten bi kilometroetan, hain xuxen ere. Auzapezak berak emanen du A Currilinguaren abiatze seinalea.

Bestalde, Porti Vechjuk ere antolatua du A Currilinguaren errezibitza bertatik iragatean, eta Bonifaziuk bukaera ekitaldia, 21:00etan.

Adarrez adar

Iazko uztailan Borgutik Sulinzararaino egin zuten lasterka, ipar-ekialdeko kostatik hegoaldera, eta 114 entitatek erosi zituzten 90 kilometroak. 270 korrikalarik parte hartu zuten, eta berrogei boluntariok lagundu antolaketan.

Bildu zituzten 14.005 euroak korsikera akuilatzen duten elkar-teei banatu zizkieten. Alde batetik, Fiuramossa elkarteari, zeinak filmak korsikeraz bikoizten baititu; bertetik, Basta a Parla Bastia-ko elkarteari, sareko irratia gara-



A Currilinguaren aurtengo lekukoa. PARLEMU CORSU

zten laguntzeko. Hirugarrenik, Scola Corsa ikastola korsikarrak bultzatuko.

Parlemu Corsu kolektiboaren barruko bi proiektu ere lagundu ditu A Currilinguak: animatzaileak formatzeko eta Rubbutiscola robotika tailerra. Horiek oro kor-

sikeraz. Haatik, Korrikan ez bezala, lasterketak garraiatzen duen lekukoa urte guzietz kanbiatuko dute: aldi guzietz artisa bati matatuko diote sor dezan: «Aurten arotz bati galdegin diogu gure ikurra egin dezan: zuhaitza», xehatu du Lecciak.

Hiru besoko adarra zizelkatu zuten Carlos Campos eta Cheyenne Texierek, zuhaitza iduri; hori izan zen iazko lekukoa: «Carlosek erabilitako jats giderra gero Cheyennek grabatu eta apaindu zuen», zehaztu du umoretsu.

Aurtengoa, berriz, Marc Antoine Kochert artista kreativek landu du: «Hastapenean adar idor bat egiten esprabatu nuen, baina mezua ez zitzaidan arras baikorra iruditu... Beraz, fruitu eta baia zati txipiak gehitu dizkiot. Oliba zaina bihurtu da, bizirik eta zukuz betea, zaindu eta transmititu behar duguna!».



Hemen jaietako egitaraua

ZARAUZKO JAIAK!



Araba Kalea 27. ZARAUZ
943 130 525
info@chapucetti.eus
www.chapucetti.eus



DISEINU GRAFIKOA:

KORPORATIBOA
EDITORIALA
ILUSTRAZIOA
PARKINGIA

EHUNGINTZA:

KIROLETAKO ARROPA
PERSONALIZAZIOA
(mezu, laborala eta kroketako)
KOMUNIKAZIOA
(banderak, poltsak, bukar-zorroak, txapelak...)

ERROTULAZIOA:

LOKALAK
(barmetxoak eta kanpokoak)
SINBOLUAK
SINBOLAZIOA
(barmetxoak eta kanpokoak)
EKITALDIAK

MERCHANDISING:

PUBLIZITATE OPARIAK
PERSONALIZAZIOA

EKITALDIAK:

KULTURALAK
(Eko-konkatek, Azokak eta Kongresuak)
KORPORATIBOAK
KORPORATIBOAK
SOSIALAK
(eskrupulak, urtebetetzeak, gajakokoak)

INPRIMATZEA:

DIGITALA
OFFSETA
FORMATU HANDIA
SERIGRAFIA

BORDA
ARDOAK

Foruen kalea 12, behea • ZARAUZ • Tel.: 943-13 42 05